


# Arrasate

P R E S S

1998ko  
Irailak 4  
418. zenb.



## Mister X

### Afrikatik mundura

IKUSPEGIA: J. M. VELEZ DE MENDIZABAL • KIROLAK: MONDRAGON F. C. TALDEA  
EUREN IKUSPUNTUTIK: JULIA MONGE • KULTURA: GOIKOBALU


# ETXE MOBEL

MUEBLES

ALZARIAK

**LOGELATAN  
maisuak**

**Zapatu  
arratsaldeetan  
zabalik!!**



**Eta orain  
2. SOLAIRUA**

**Egongela eta  
sofa erakusketa**

Etxe Mobil, Deba Garaian eta Behean zehar logela, sofa, egongela eta osagarriak errazago topatzeko saltokia. 48 urteko esperientzia.

Hemengo profesionalak zuzendua. **BENETAN HARRIGARRIA!**

Araba Etorbidea, 5 (ESKATU Pabilioia, San Andres auzoa) Tel. / Faxe: 943 79 41 82

**ARRASATE**

# Eusko Ikaskuntza: 80 urte

Laurogei urte dira, irailaren lehenengo egunetik zortzigarrena bitartean, Euskal Herriak inoiz bizi izan duen kultura egitasmorik handienetakoa abia eman zitzaionetik, Oñatin. Aste hartan, euskal gizarteak kontzientzia osoz jakin izan zuen euskal kulturari arreta berezia eskaini behar zitzaiola, herri bezala iraun-go bazuen.



J. M. Velez de Mendizabal

Aspaldiko kezka batek mugiarazi zituen garaioko euskaldun haiek Oñatiko Kongresua egitera: euskal kultura eta unibertsala uztartu beharra zegoen, edozein herri modernizatuk egingo zukeen bezala.

Euskal Herriko lau aldundien erabakia erdugarria izan zen: erakunde iraunkor bat eratu zen, euskal kulturaren egituraketa eta koordinazioa bermatze-

**“3.000 bazkide ditu eta urtean 40 bat liburu argitaratzen ditu”**

ko. Horixe zen Oñatira bildutakoen asmorik garrantzitsuenak, eta asmo horretatik jaio zen Eusko Ikaskuntza, lau diputazioen babespean eta euskal kultura lokailutat hartzen zuten intelektual guztien onepinarekin.

Arrasateko herriak ere bere ekarpen txiki baina interesgarria izan zuen 1918ko Eusko Ikaskuntzaren I Kongresu hartan. Zortzi egunean zehar aritu ziren irakasleen artean Juan Karlos Gurraren izena azaltzen zaigu, genealogia eta heraldikari buruzko bi ikasgairekin. Kongresukideen artean, behintzat izena eman zutenen artean, Sebero Altube, Rikardo Añibarro, Rikardo Azkoaga eta

Manuel Garikano ditugu, eta era berezi batez, babesle gisa, Arrasateko Udala ere agertu zen. Dena den, jakin badakit Oñatira egun haieran beste arrasatear gehiago ere hurbildu zena, han

egosten ari zenaz jabetzeko. Anonimo haien arteko bat Peli Ugalde dugu, urtean Arrasaten izan zen euskaltzalerik sutsuenetakoa. Haren seme Jonek esanda ezagutzen dut, Oñatiko Kongresu hartatik berrindartua etxeratu zela Peli, aurretzean herriko ekintza ugarien bultzatzaile fina izango zena.

Laurogei urte igaro dira ordudunik eta, nioen bezala, Eusko Ikaskuntzaren helburu nagusia lehengo bera da: euskal kultura eta zientzia, ahal bezainbeste eragin eta sendotu, mundu osoari esku zabaltasun eta duintasunez eskaintzeko. Beraz, ikerketa elkarte bat da. Estatus juridiko berezi baten jabe izanik, ofizialtasun osoz ari da lanean EAEn, Nafarroan eta Iparraldean. Zientzia elkarte bakarra da Euskal Herri osoan horrela jardun deza keena eta nolokotasun horrek ahalbidetzen dio, euskal zientzilarien komunitatea artikulatzeko aukera. Gaurregun ia 3.000 bazkide ditu, mundu osokoak, eta urtero berrogei liburu baino gehiago publikatzen ditu, hain zuzen ere bazkideen ikerketa lanek osatuta. ■

*“(Mondragon) Unibertsitatea etorkizuneko egitasmo bat egiten ari da. Teknologia parke baten antzekoa nahi du inguruan”*

Jose Mari Loiti

# 188

gazte soldadugai Arrasaten

Arrasateko Udalaren Idazkaritzan 188 soldadugai daude izena emanda 2000. urteko deialdian. Horietatik bakarrik 11k egingo omen dute soldadutza. 141ek luzapena eskatu dute eta 11k era bateko edo besteko gaixotasuna dutela alegatu dute.

ITURRI ONETIK

## Jesus Loroño eta Kosme Barrutia

Bi txirindulari handi hauek topo egin dute minbiziarekin. Lehena abuztuan hil zen. Bigarrena airoso irten da martxoan egin zioten ebakuntzatik. Biek dute zerikusirik Arrasatekin. Jesus Loroñok istripu izugarria izan zuen 1954an Kanpazar jaisten, Eibarko San Joan Sarian sei minutuko aldearekin lasterketa buruan zihoala. Bere karrerako istripurik larriena izan zen. Kosme Barrutia —Anton Barrutiaren anaia nagusia— Arrasaten izan genuen 80. hamarkadan, Iturripen masajeak ematen. Orain ere horretan dihardu Iurretako etxean.



ARRASATE KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Kgmunikabideak) Otalora kalea, 31 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa) Tel.: 943 77 05 65. Faxa: 943 77 09 40 E-mail: arrasatepress@readysoft.es Tel. mugikorra: 908 39 78 86

**Laguntzaileak:** Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Joxe Aranzabal. **Kazetariak:** Marijo Deogracias, Marian Porcel, Nalara Gorroño. **Publizitatea:** Kaitlin Allende, Nerea Zallo, Arantazu Lagunilla. (Tel.: 943 77 08 15). **Administrazioa:** Agurtzane Gainzarain (Tel.: 943 79 02 26) **Disenua:** Txos Azurmendi. **Asteburuetako berri-maleak:** Lierni Urbarren. **Kolaboratzaileak:** Ander Etxeberria, Marta del Campo, Iban del Campo, Itxaro Artola, Bixente Azkarate, Joxerra Agirreureta, Juan Luis Azkarate, Aitor Orobengoa, Mikal Irizar, Udaleko Gazteer Saita, ASA Itzidea, Emeko Allende, Bessalde M. E., Karmelo Urbarren, Bixente Pagaño, Amaia Jaurregi-Arraburu, Juan Bautista Agoria, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Xabier Letona, Karmele Perez, Kopi, Jon Ozaeta, Jabi Luengo, Maite Barreña. **Banaketa arduraduna:** Jasone Mendizabal-AED. (Tel.: 943 77 12 28). ©ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.300. **Lege-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzunkizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azaleko argazkia: Ignacio Perez.



Arrasateko Udaleraren laguntza



Gipuzkoako Foru Aldundiararen laguntza



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza

## GUARDIAKO FARMAZIAK

- Ostirala, 4  
 • Egunez: Irizar, Erguin  
 • Gauez: Estella, Bergara
- Larunbata, 5  
 • Azkoaga, Ferrerías  
 • Mozos, Bergara
- Igandea, 6  
 • Español, Iturrioz  
 • Mozos, Bergara
- Astelehena, 7  
 • Korkuera, Musakola  
 • Gualla, Bergara
- Astearte, 8  
 • Irizar, Erguin  
 • Estella, Bergara
- Asteazkena, 9  
 • Azkoaga, Ferrerías  
 • Mozos, Bergara
- Osteguna, 10  
 • Español, Iturrioz  
 • Estella, Bergara

## BEHARREZKO TELEFONOAK

**Eritetxeak**  
 Arrasateko Eskualde-Ospit. 943 79 53 00  
 Igalatorioa ..... 943 79 05 00  
 Santa Agedako Ospitalea  
 (gizonak) ..... 943 79 39 00  
 (emakumeak) ..... 943 79 44 11  
 Buru osasunerako zentrua 943 79 90 11

**Gurutze Gorria**  
 Bergara ..... 943 76 55 76

**DYA**  
 Antzuola ..... 943 78 71 57

**Anbulatorioak**  
 Arrasate (Larrialdiak) .. 943 79 13 57  
 • Txanda hartzeko; medikuntza  
 orokorra eta pediatria 943 77 03 46  
 • Espezialitateak ..... 943 77 05 78  
 943 77 12 64  
 Oñati ..... 943 78 08 52  
 Eskoriatza ..... 943 79 98 58  
 Aretxabaleta ..... 943 79 74 58  
 Aramaio ..... (945) 943 45 51 16

**Anbulantziak**  
 Gipuzkoako ambulanziazki 943 45 87 44

**Udaltzaingoa**  
 Oñati ..... 943 78 04 11  
 Bergara ..... 943 76 14 69  
 Arrasate ..... 943 79 14 39  
 Aretxabaleta ..... 943 79 10 52  
 Eskoriatza ..... 088

**Ertzaintza**  
 Arrasate ..... 943 79 71 99

**Suhiltzaileak**  
 Udal taldea ..... 943 79 09 00  
 Udal taldeko suhiltzaile burua 943 79 20 72  
 Zubillagako Eskualde-Parkea ... 088

**Matxurak**  
 Urak (udal zerbitzua) .. 943 79 09 00  
 Argindarra (Iberduero) .. 943 12 01 62  
 Gasa ..... 900 40 05 23  
 ..... 943 79 78 44  
 ..... 943 79 76 78

**Garraioak**  
 Taxiak ..... 943 79 12 22  
 PESA ..... 902 10 12 10

**Hirugarren adinekoentzako zentruak**  
 Iturbide Egoitza ..... 943 79 72 11  
 Abaroa jubilatuen egoitza 943 79 81 57

**Kontsumitzailearentzako informazioa**  
 KIUB-OMIC ..... 943 79 51 55

**Monterron liburutegia**  
 Monterron ..... 943 77 01 05

**Irratia**  
 Arrasate Irratia ..... 943 79 58 77

## Jaiotzak

- Saioa Gonzalez Aparizio. Uztailaren 5ean.
- Ander Gonzalez Conde. 6an.
- Ane Caceres Aldai. 9an.
- Julen Urrutia Atxa. 12an.
- Aitana Gomez Etxebarria. 15ean.
- Endika Landaluze Lacalle. 16an.
- Alaitz San Vicente Carmo- na. 16an.
- Andoni Oteiza Oteiza. 17an.
- Ibai Zeziaga Bengoa. 18an.
- Sara Etxebarria Bergaretxe. 19an.
- Lorea Arejola-Leiba Zibe- ira. 20an.
- Olaia Garro Pardo. 25ean.
- Iñaki Arana Andres. Abuz- tuaren 1ean.
- Nagore Uribesaldo Diaz. 2an.
- Uxue Ayesta Moreno. 7an.
- Naiara Carmona Vicario. 10ean.
- Ainhoa Murillo Letona. 16an.
- Ane Ribero Badiola. 17an.
- Jokin Lasa Escobales. 21ean.
- Ander Heriz Rodriguez. 25ean.

## Ezkontzak

- Josu Madinabeitia eta Gar- biñe Goñi. Uztailaren 4an.
- Oskar Arlanzan eta Rosa Maria Manchado. 4an.
- Ignazio Azkue eta Edurne Mujika. 9an.
- Alberto Rodriguez eta Lau- ra Sanchez. 11ean.
- Jose Luis Pasamar eta Mari Karmen Martin. 11ean.
- Iñaki Arsuaga eta Rosa Maria Fernandez. 17an.
- Luis Cabañes eta Maria Itur- be. 18an.
- Luis Romero eta Miren Kar- mele Astaburuaga. 18an.

- Jesus Mari del Rio eta Ana Maria Sanchez. 18an.
- Jose Ramon Limia eta Maria Silbia. 18an.
- Juan Antonio Gonzalez eta Alicia Delgado. 25ean.
- Jose Antonio Oliva eta Mar- ta Velez de Mendizabal. 25ean.
- Jose Benito Ferreiro eta Mari Karmen Guria. 30ean.

## Hildakoak

- Pedro Oteiza Delas. 86 urte. Uztailaren 1ean.
- Pedro Huete Huete. 44 urte. 2an.
- Frantzisko Lasa Bengoa. 83 urte. 3an.
- Angel Etxabe Unamuno. 84 urte. 3an.
- Vicente Etxezarreta Galdos. 75 urte. 9an.
- Juan Maria Loiti Agirre. 63 urte. 11ean.
- Asunzion Zeziaga Lasaga- baster. 94 urte. 18an.
- Luis Larreategi Bolinaga. 70 urte. 22an.
- Luciana Uriarte Gallastegi. 82 urte. 26an.
- Margarita Urteaga Arregi. 70 urte. 27an.
- Faustina Zarraoa Elorza. 97 urte. Abuztuaren 6an.
- Benedicta Arrese Arrieta. 87 urte. 12an.
- Isidra Uribe Goitia. 90 urte. 12an.
- Asuncion Aranburuzabala Iña- rra. 83 urte. 12an.
- Juan Sagasta Elorza. 75 urte. 14an.
- Venancia Okina Zeziaga. 86 urte. 14an.
- Maria Oruna Balanzategi. 72 urte. 16an.
- Maria Alberdi Odriozola. 93 urte. 19an.
- Felisa Altuna Xpe. 71 urte.

19an.

- Victor Errarte Uribetxeba- rria. 76 urte. 19an.
- Margarita Garzia Martin. 91 urte. 23an.
- Jose Barrutia Mujika. 76 urte. 23an.

## Ikuspegian aldaketak

Aste honetatik aurrera irakurleak hainbat aldake- ta igarriko ditu hirugarren orrialdeko *Ikuspegia* sai- lean. Orain arte hamasei lagunek idazten zuten. Hemendik aurrera, berriz, lau izango dira. Horieta- tik hiru lehengoak: Kar- mele Perez, Mikel Irizar eta Iker Barandiaran. Bes- tea aspaldiko ezaguna etxe honetan: Josemari Velez de Mendizabal. Josemarik asko idatzi izan du Arrasate Pressen, batez ere lehen urteetan.

Aldaketaren arrazoirik printzipalena hauxe izan da: irakurleen interesa pizte aldera, aukera eman nahi genien idaz- ten dutenei beren pen- tsamentuaren ildo nagu- siak garatzeko. Horrek ezinbestekoa du orain arteko formulak eskain- tzen zuen maiztasuna areagotzea.

Oraingo erronka onar- tu dutenei eta uzten gai- tuztenei, gure eskerrik beroenak eman nahi diz- kiegu, lerro hauek apro- betxatuz.

# Monte taberna


Maalako arrabala, 11  
 Tel.: 943 79 20 56

**UGARAN jatetxea**  
 Garagartza auzoa  
 Tel: 943 79 76 58  
**ARRASATE**

**M MEMESA**  
 Industria hornidurak  
 Tel. 943 71 24 25

# Non ibili zara oporretan?

*Aurten ere jende asko irten da herritik kanpora oporrak pasatzera.*



**Txema Garro**  
(37 urte)  
Langilea

Errioxan izan naiz, eta oso gustura ibili gara. Dagoeneko lanean hasia naiz eta hori bai dela gogorra.



**Josune San Vicente**  
(31 urte)  
Irakaslea

Peñiskolan izan naiz hila-bete osoan, apartamenduan. Lasaitasun eta eguzki bila joan naiz hara.



**Amaia Etxebarri**  
(14 urte)  
Ikaslea

Donostian izan naiz hila-bete osoan, etxe batean.



**Jon Izazelaia**  
(37 urte)  
Bidaia agentea

Oraindik ez dut oporrik hartu. Irailean Malagara joango naiz hamabost egunerako.



**Juan Luis Santos**  
(26 urte)  
Langilea

Segoviako herri txiki batean izan gara, Cuellarren. Sarritan joaten gara. Orain hango jaietara itzuliko gara.




**Lourdes Luser**  
(39 urte)  
Erizaina

Marbellan eta Nafarroako Pirinioetan izan naiz. Marbella ez zait hain zoragarria iruditu. Oso lasai ibili gara.



**Maite Agiriano**  
(8 urte)  
Ikaslea

Pineda del Mar herrira joan naiz gurasoekin. Igerilekua da gehien gustatu zaidana, etxe ondoan geneukan eta.



**Urko Laburu**  
(23 urte)  
Ikaslea

Inter-Rail bat egin dut Europan zehar. Suitza, Austria, Alemania, Eslovenia, Kroazia... ezagutu ditugu. Budapest izan da politena niretzat.

**Spek Denda**



Iturriotz, 19  
(Herriko plaza) ARRASATE

**JUBAR**  
ATEAK. S.L.®

- BURDINAZKO ATEAK
- ETA PERTSIANAK.
- AUTOMATISMOAK.
- KONPONKETAK.

Kataide industrialdea, 18 • ARRASATE  
Tel.: 943 79 10 20 • Fax: 943 79 08 17

*Sili Sili*

**Martxa eta estilo handiko arropa**

Iturriotz, 9 • ARRASATE  
Tel.: 943 79 81 82

# Arrasate

## LANAK

### MUSAKOLAN


Asfaltatze eta konpontze lanak A-20 eremuan.

### AZATZA ETXEETAN

Monterron eta Musakola lotuko dituen pasealkua egiteko lanak.

### ARRASATE PASEALEKUA

Pasealekua konpontzeko lanek aurrera segitzen dute. Abuztuan geldu egin dira.




**Biztanleak: 24.257**  
**Eremua: 33 Km<sup>2</sup>**  
**Garaiera: 211 metro**


## Eguraldiaren aurreikuspena



**OSTIRALA 4**



**LARUNBATA 5**



**IGANDEA 6**

Tarteka lainoak agertuko diren arren, ez dute urik ekarriko. Tenperatura ez da aldatuko.

Goizaldean agian euria egiteko arriskua izango da, baina egunean zehar aterik egongo da. Tenperatura igo egingo da.

Lainoak areagotuko dira eta arratsalde partean zaparradaren bat edo beste egin dezake. Haizeak mende-baldetik joko du.

## Ilargia



**Ilbete**

Igandean, irailak 6, ilbetea izango da.

## Mezak

### Parrokia

#### Larunbatean

19:00 (elebiduna)

#### Igandean:

09:00 (erdaraz)

11:00 meza nagusia (euskaraz).

12:30 (elebiduna)

### San Frantzisko

#### Larunbatean

19:00 (elebiduna)

#### Igandean:

09:00 (euskaraz)

10:00 (erdaraz)

11:00 meza nagusia (euskaraz).

12:30 (erdaraz)

19:00 (elebiduna)

### Uribarri

#### Larunbatean

19:00 (elebiduna)

#### Igandean:

11:30 (euskaraz)

12:30 (erdaraz)

### San Andres

#### Larunbatean

19:00 (elebiduna)

#### Igandean

10:00 (erdaraz)

11:00 (euskaraz)

12:30 (erdaraz)

### Santa Teresa

#### Larunbatean

19:00 (elebiduna)

#### Igandean


10:30 (erdaraz)

11:30 eta San Isidron (euskaraz)

12:30 (erdaraz)

**Urkuluko uraren maila**


**%80,6**



## Distantziak

### Arrasate

121	Baiona								
690	579	Bartzelona							
57	170	620	Bilbo						
1.159	1.038	2.883	1.207	Brusela					
72	50	529	119	1.088	Donostia				
40	180	530	66	1.206	118	Gasteiz			
107	120	437	159	1.180	92	93	Iruñea		
391	519	621	395	1.556	469	351	407	Madril	
864	743	1.113	911	296	792	910	884	1.260	Paris




**ARRASATE  
KIROLAK**

## **ESKOLAREN HAMABOSTALDIA**

Aprobetxatu Arrasate Kirolak-ek Eskolaren Hamabostaldian eskaintzen dituen aukerak.

Kontzezino kalea, 8 • Tel.: 943 79 46 12 • 20500 ARRASATE



*Elisabeth*

# **LIKIDAZIOA**

**Arropak bukatu arte**

Araba Etorbidea, 18 • Tel.: 943 77 14 86 • ARRASATE

4

ostirala

■ ZINEA

*Armageddon*, Alai zine-  
man, 22:00etan.

5

larunbata

■ ZINEA

*Armageddon*, Alai zine-  
man, 17:00etan, 19:30etan eta  
22:00etan.

■ KONTZERTUA  
GAZTETXEAN

Alemaniko *No Respect*  
punk-ska taldea arituko da  
Gaztetxean. Kontzertua gaue-  
ko 22:00etan hasiko da.

■ EXTREMADURA EGUNA

Goizeko 10:00etan sardi-  
na jatea egingo da Landako  
urtegiaren inguruan, hantxe  
ospatuko baita Extremadura  
eguna. 11:00etan, berriz,  
ezkonduen eta ezkongabeen  
arteko futbol partida jokatu-  
ko da. Eguerdian, 12:00etan,  
emakumezkoen txanda izan-  
go da futbol zelaian. 13:00etan,  
sukaldaritza lehia-  
keta. 14:00etan kaldereta egin-  
go dute. 14:00etan gizonez-  
koek *kuatrolan* eta emaku-  
meek *txintxonean* jokatu-  
ko dute. 18:00etan umeen jola-  
sak egingo dira eta 19:00etan  
igela txapelketa.

6

igandea

■ ZINEA

*Armageddon*, Alai zine-  
man, 17:00etan, 19:30etan eta  
22:00etan.

■ LEINTZ-GATZAGA  
JAIETAN

Araiako musika bandaren  
emanaldia 17:30etan, Marko-  
le plazan. 19:00etan Dorletan  
bederatziurrena eta 22:00etan  
Kaixo taldearen dantzaldia.

■ MENDI IRTEERA

Besaide mendizale elkar-  
teak Bera-Larrun-Sara ibilal-  
dia antolatu du iganderako.  
Denboraldiko lehenengo ibi-  
laldia goizeko 07:00etan irten-  
go da Garibai kaletik.

■ IBILALDIA BIZIKLETAN

Traileko lehenengo irtee-  
ra egingo dute txirrinduzale-  
ek. Arrasate, Arlaban, Legu-  
tio, Elusu, Legutio, Kurtzeta  
eta Arrasate ibilbidea egingo  
dute. Irteera ordua betikoa  
izango da.

7

astelehena

■ ZINEA

*Armageddon*, Alai zine-  
man, 19:00etan eta 21:30etan.

■ LEINTZ-GATZAGA  
JAIETAN

Bederatziurrenaren amaie-  
ra, Eskoriatzako eliza abes-  
batzarekin 19:00etan. Esko-  
riatzako txistulariek jotzen  
duten bitartean, gazta eta ogia  
eskainiko da.

**ARETXABALETAKO KOMUNIKABIDEAK-LORAMENDI ELKARTEA**  
*bi langile kontratatu behar dira:*

**ARETXAGAZETA**

Kazetaria, egun osoz  
Baloratuko da:

- Euskara maila
- Informatika erabiltze maila
- Artxabaleta ezagutzea
- Bertako euskara ezagutzea

**ARETXABALETAKO TELEBISTA**

Teknikaria, egun erdiz  
Baloratuko da:

- Irudi eta soinu tekniketari ikasketak  
edo esperientzia
- Euskara maila

Curriculumak irailaren 10a baino  
lehen Artxagazetara (Kultura  
Etxera) ekar daitezke edo 151  
postakutxatilara bidali.

Berri gehiagorako,  
dei egin 943 79 01 05 telefonora.



# 8 asteartea

## ■ ZINEA

*Armageddon*, Alai zine-  
man, 19:00etan eta 21:30etan.

## ■ EXTREMADURA EGUNA

Extremadura eguna dela  
eta, Corazon de Encina zen-  
truan topa egingo dute Extre-  
madurako ardoarekin.  
19:30etan.

## ■ LEINTZ-GATZAGA JAIETAN

Otxandixokoei ongi eto-  
rria egingo zaie 11:30etan.  
Eguerdiko 12:00etan meza  
santua esango da eta 13:00etan  
herri txikiteoa *Ardoa Barru-  
ra* fanfarrearekin. 16:00etan  
haurrentzako jolastokia ire-  
kiko da, herriko plazan.

## ■ TXATXILIPURDIREN UDALEKUAK

Bihurrikeixetan,  
Txatxilipurdiren irailako  
udalekuak hasi dira  
dagoeneko. Haur  
hezkuntza eta lehen  
hezkuntzako neska-  
-mutikoei bi txandatan  
arrituko dira: irailaren 7tik  
18ra lehenengoa eta 7tik  
25era bigarrena. Orduetara  
15:00etatik 18:00etara  
izango da. Aerobica,  
igeriketa, eskulanak,  
eskalatzea eta antzekoak  
egiteko aukera izango dute  
haur guztiek. Izena  
emateko Txatxilipurdiren  
egoitzara joan zaitezke  
edo 943 79 54 46  
zenbakira deitu.

## ■ PERKUSIO IKASTAROA

Nick Twinlleyk zuzen-  
dutako perkusio ikastaroa  
antolatu da Gazteluondo  
ikastolan. Ikastaroa  
irailaren 8tik 11ra izango  
da, arratsaldeko 18:30eta-  
tik 21:00etara. Matrikula  
7.000 pta. kostako da.  
Berri gehiago 943 79 80  
25 zenbakian izan  
dezakezue (Iñaki).

## ■ MEXIKO ETA GUATEMALA

Karmelo Uribarrenek,  
"Mexiko eta Guatemala"  
herrialdeen inguruko  
argazki erakusketa jarri du  
Kajoi tabernan. Argazki  
bilduma irailaren 13a arte  
egongo da ikusgai. Orain  
hiru urte, 1995eko uztail-  
-abuztuan ateratako  
argazkiak dira jarriko  
direnak. Mexiko, Yucatan,  
Chiapas eta Guatemalako  
bazterrak, Karmelo  
Uribarrenen ikuspegitik.

## ■ 59AN JAIOTAKOEN AFARIA

Musakolan 1959an jaiotakoak  
afaria izango dute  
irailaren 12an, larunbata.  
Interesatuak Txinato  
tabernan eman dezakete  
izena 16:30etatik aurrera  
edo Amaia Mendikutez  
galdetuz. Afaria aurrez,  
2.000 pta kostako da.

## ■ IX. ARGAZKI LEHIAKETA

Gazteak eta komunikazioa  
izenburupean antolatu dute  
udaleko Gazteria eta  
Emakume sailek, ASA  
taldearekin batera, argazki  
lehiaketa hau. Argazkiok  
zuri-beltzean zein koloretan  
aurkeztu ahal izango dira,  
udaleko Gazte Zerbitzuan,  
urriaren 9a baino lehen.  
Lehiaketara aurkezten  
diren lanekin erakusketa  
osatuko da.

## ■ ITZULPEN SARIA

AEDk antolatzen duen XII.  
Jokin Zaitegi Itzulpen  
Laburren Saria abian da.  
Munduko edozein  
hizkuntzatatik itzulitako  
idazlanak aurkez daitezke  
lehiaketa honetan. Lanak  
aurkezteko epea urriaren  
31n amaituko da. Lehen  
sariak 200.000 pta jasoko  
ditu; bigarrenak, berriz,  
100.000 pta.

## LAN ESKAINTZAK

### Udal idazkaria

Lanpostua hornitu behar da bitarteko  
funtzionario izaeraz.

Baldintza akademikoa: Zuzenbidean, Politikan  
edo Soziologian lizentziatua.

Deialdia arautzen duten oinarriak Gipuzkoako  
Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira, abuztuaren  
20an.

Eskabideak aurkezteko epea irailaren 12an  
amaituko da.



ARRASATEKO UDALA

Pertsonal Saila ■

EROSKI BIDAIAK
EROSKI BIDAIAK

## Hau bezalako preziorik ez duzu ikusiko beste inon

### TUNEZ

Irteerak irailaren 14an eta 21ean.  
8 egun. Hotel \*\*\*  
Hegazkina Bilbotik  
Prezioa pertsona bakoitzeko

# 48.000

PTA. tik  
HASITA

## VIJES EROSKI

BIDAIAK

Prezio Onak baino gehiago

LARUNBATETAN arratsaldetik ere ireki egiten dugu  
EROSKI HIPERMERKATUETAKO bulegoetan

USTEAK USTE

Eginkizunak

**O**porrak bukatu dira. Herrira itzuli eta zenbait eraikuntza zahar falta direla konturatu gara. Baita Takoloko lanak erdi bukatuta daudela. Musakola aldean, berriz, espaloiak eta erreka inguruak hankaz gora aurkitu ditugu. Orain, osterera, Otalora kalea asfaltatzen ibili direla eta, izan dugu gorabeherarik. Ez gara kexatzen, ordea. Herria edertzen eta hobetzen ari da. Hori begi bistakoa da.

**Datozen hilabeteetan kaleetako lanak eta bestelakoak ere ugari izango ditugu. Hurbilenak urriaren 25ean izango diren hauteskundeak. Badakizue horiek zer esan nahi duen: aurrekanpaina, kanpaina eta enparauak.**

**Geuri dagokigunez, osterera, Arrasate Pressek hamar urte beteko ditu datorren abenduan. Eta hori baino lehentxeago, Herri Komunikabideei buruzko III. Jardunaldiak egingo dira hemen, Arrasaten.**

**Denok ere izango dugu eginkizunik franko. Ea lortzen dugun iazkoa baino ikasturte hobea izatea. Ondo hasi.**

Joxe Aranzabal



Agur Emakumeen Udal Batzordeari

Julia Monge\*

**A**rrasateko Emakumeen Asabladak honako erabaki hau jakinarazi nahi die Emakumearen Udal Batzordeko kideei:

M. Angeles Inurritegi batzordeburuak emakume batek Aterpetxean sartzeko egindako eskabidearen aurrean izan duen jarrera ikusirik, ez dugu, duintasunagatik eta talde moduan ditugun planteamentuen ondorioz, parte hartuko batzorde honetan.

Honatz gertatutakoa.

1. Uztailaren 8ko batzordean Emakumeen Asanbladak bi emakumek beren sei seme-alabekin bizi duten egoera larria dela eta, denak aterpetxe batean sartzera proposatu zuen behin behinako neurri moduan, Arrasateko erroldan sartu bitartean.

2. Uztailaren 16ko bileran, emakume horietako bati ebakuntza egin behar zitzaioela eta, gutxienez emakume horren

eskaera onartzea proposatu zen, bizi zen furgonetan higie-ne baldintzarik ez zegoelako.

3. Uztailaren 17an Asanbladako kide bat udaletxera joan zen aipatu emakumearekin, honek eskaera sina zezan. 17an egin beharreko bilera 20 atzeratu zen.

4. M. Angelesek esan zuen eragozpen bat zegoela: emakumea ez zegoela errol-daturik Arrasaten. Hainbat eztabaida eta kontsultaren ostean, lehendakariak erabaki zuen 20ko bilera bertan behera uztea

Honaino egitateak Gure balioztatzea etsipenetik eta

“  
Gure erabakia ez da behin betikoa. Hala ere, kanpotik borroka eginez segituko dugu  
”

ezintasunetik abiatzen da, baina baita orokorrean anker- eta zehatzean arrazistatza- jotzen dugun jarrera baten aurreko hausnarketatik ere.

Ez zaigu tokirik geratzen agintearen, bortxazko ezarpenaren eta gizabanakoen erabakien aurrean... ustez jokatu beharko genukeen joko demokratikotik baino, despotismotik hurbilago dauden jarrerak direlako.

Sarrerak Erabakitze- ko Batzordea (politikoak, teknikoak eta emakumeen talde- tako ordezkariak) biltzeko ezintasunak, pertsona bakar batek erabakita, kasu honetan lehendakariak, bide baka- rra du, non ez dagoen beste ahotsik eta ez den errespetat- zten norberarenak baino ez diren iritziak. Gu hor egote- ak, beraz, ez du zentzurik.

Ez dugu esku hartu nahi gauza politetan soilik, ez dio- gu bizkarra eman nahi erre- alitateari, nahiz eta hau gor- dina izan, eta ezin dugu onar- tu bere kargua dela eta, bere burua besteen gainetik ezar- tzeko joera duen hori.

Gure erabakia ez da behin betikoa, beti egin baitugu lan gure ekarpenak balio zuela- koan hainbeste desiratzen dugun etorkizunaren alde.

Hala ere, udal honetan emakume taldeak izena baino zerbait gehiago garela erakusten duen jarrerarik ez den bitar- tean, kanpotik borroka eginez segituko dugu.

Arrasateko Emakumeen Asanbladako kidea

**TOKION**  
ELEKTRONIKA  
ARTIKULUEN SALMENTA  
Erdiko Kale, 7  
Tel.: 943 79 91 64 • ARRASATE

**BASABE JATETXEA**  
Menu eta afariak  
Boda eta banketeak  
Tel.: 943 79 91 84  
ARETXABALETAK

**OSORIK PUB**  
Ignazio Zuluaga, 4  
ARRASATE

astea bi hitzetan

■ Emakumeen

**Asanblada kanpora**

Arrasateko Emakumeen Asanbladak utzi egin du Emakumearen Udal Batzordea, protesta gisa Mari Angeles Iñurritegi batzordeburuak azaldu duen jarreragatik ebakuntza izan duen emakume portugese batekin. Emakumearen Udal Batzordeko zerebitz kidek proposatu zuten kasu berezietarako udalak dauzkan aterpe-txetarikoa bat uztea emakumeari. Emakumeen Asanbladak dioenez, batzordeburuak oztopoak baino ez zizkien jarri. Horregatik utzi du udal batzordea.

■ Udalak diru gehiago jarriko du Jakionen

Arrasateko Udalak 121 akzio erosiko dizkio, hau da, 2.420.000 pta, Leintz-Gatz-

gako Jakion enpresari, honek egindako eskaria onartuz. Jakionek kontserbak egiten ditu. Deba Garaiko baserri-tarrek hazitako barazki eta fruituekin. Oporrak aurretik 10 milioi pta.ko kapital zabaltzea proposatu zien Deba Garaiko udalei. Jakionen kapitala 15 milioi pta.koa da gaur egun.

■ Hiru hildako istripuz

Abuztuak istripuz hildako hiru lagun eraman ditu Arrasaten. Abuztuaren 6an Aitor Arana 30 urteko aramaioarra hil zen Peruko mendietan: 80 metroko amildegi batean erori zen. Dirudienez, Aitorrek taldea utzi zuen 6.800 metroko mendatea bakarrik igotzeko asmotan. Abuztuaren 26an, bestalde, Francisco Horrillo eta bere alaba Guadalupe, auto istri-

puan hil ziren Legution. Guadalupe, Arrasateko PSE-ko zinegotzia den Paco Garcia-ren emaztea zen eta 38 urte zituen. Aitak, berriz, 75 urte. Zeramatzen furgoneta bidetik atera eta Urbina erre-kara erori zen.

■ Zazpi eraikuntza behera

Uda eraikuntza zaharrak botatzeko aprobetxatu du udalak. Abuztuaren zazpi bota dira. Lehenengoa Zaldispen zegoen, tren geltoki zaharreko biltegia hain zuzen ere. Agerre eta Pablo Uragak kaleetako beste bi eraikuntza ere bota dira. Gainerakoak Ferrerias, Iturriotz eta Zarugalde kaleetan zeuden. Azken eraikuntza hauen aurrealdeko paretak ez dituzte bota, hirurak ere XVII. mendekoak ziren eta.

**ZABOR GEHIAGO GARAGARTZAN**

Iturburo hondakin alternatiboen zabortegean biltzen diren hondakinak %25 hazi dira urteko lehenengo sei hilabeteetan. Epe honetan, iaz baino 173.257 kilo zabor gehiago bildu dira: 861.710 guztira. Lanetako hondakinak dira jaso diren gehienak, baina badira plastiko, egur, txatarra, kartoi eta paper hondakinak ere. Ekainean zehar bildu ziren zabor gehien: 171.100 kilo.



Gerraosteko apaizteria Luis Dolararekin osatu zen Mondragoen. Bilboko Larrinagan egona zen, karlistazalea bide zelako. Sexuaren inguruko bekatuekin zuen obsesioa. Prediku gogorrak egiten zituen zalantzazko moralak omen zuten filmak ikustera joaten zirenen kontra. (...) Baina hitza beti prest zuena bekatariak gogor jorrazteko, homosexualitatearen hatzaparretan zebilen kateaturik. Haren zurikeria eta hitz hutsalak agerian geratu ziren. Aitzakia behar herritik ateratzeko eta kalonje egin zuten Teruelen".

**JESUS LARRAÑAGA**

*"Interioridades de una Utopía"*

## Frontoia girotzeko lehia

Arrasateko Udalak bigarren lehiaketaren deialdia egin du Uarkapeko pilotalekua girotzeko lanak adjudikatzeko. Inork ez zuen lehen deialdia irabazi, aurkeztu ziren enpresa biek baldintzak betetzen ez zituztelako.

Frontoia girotzeak tenperaturari eustea eta hezetasunik ez sortzea du helburu. Udalak erabaki duen legez, girotze lanak pilotalekua eraikitzeke lanetik kanpo egingo dira.

Bigarren lehiaketa honetan gutxieneko kostua 35,2 milioi pta.tik 42 milioira igo da. Heltzen diren eskaintzak irailaren 16an irekiko dira. Frontoiko lanak amaitutakotan, enpresa irabazleak sei hilabeteko epea izango du girotze sistema jartzeko.

Pilotalekua egiteko lanak abuztuaren hastapenetan hasi ziren. Zarautzko Amenabar enpresak 18 hilabete izango ditu lanok bukatzeko.

## Diru laguntzak enpresak euskalduntzeko

Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailordetzak 15 milioi pta eman ditu enpresetan euskara bultzatzeko.

Ia lau milioi pta joan dira dagoeneko plana lantzen ari diren enpresetara, besteak beste Fagor Sistemak, Alejandro Altuna, Alecop, MCC eta Fagor Ederlanera.

Beste 11 milioi pta, bidegarritasun azterketa egiteko eskatu duten enpresetara, tartean Fagor Elektratresnak, Fagor Arrasate, Fagor Automation, Fagor Ederlan eta Fagor Elektronikara.

Gehienak Arrasateko Emun enpresarekin ari dira lanean.

# Polizia frantsesak Jose Mari eta Enrike Pagoaga atxilotu zituen

Astearte goizean Frantziako poliziak —DNAT Terrorismoaren Aurkako Zuzendaritza Nazionalea— sarekada handia egin zuen Lapurdiko hainbat herritan, ustez ETarekin zerikusirik duen zenbait jenderen kontra. Operazioa egiteko agindua Laurence Le Vert epaileak eman zuen. Guztira hamalau lagun atxilotu zituzten, tartean Jose Mari eta Enrike Pagoaga anaia mondragoetarrak, Hendaian atxilotuak. Biharamunean, ostera, polizia frantsesak Hendaia mugara eraman zuen Jose Mari eta aske utzi zuen.

Jose Mari eta Enrike, Jose

Manuel Pagoaga Peixotoren anaiak dira. Musakolako Aranguren baserrian jaiok, hogeitau urte baino gehiago izango dira Arrasatetik ihes egin zutela, ETAn omen zebiltzalako. Iparraldean bizi izan dira, Latinamerikan eta Afrikan, iheslari eta kalerratu gisa.

Jose Mari 1996an itzuli zen Euskal Herrira. Baionako katedralean itxialdi bat egin ostean, Espainiako poliziaren esku jarri zuten. Carabanchelen bost hilabete egin ostean, aske utzi zuten. Ez omen dago kargurik haren kontra.

Enrikeren kasuak diplomaziaren hautsak harrotu zituen 1996an. Belgikako poliziak Bruselako aireportuan atxilotu zuen Venezuelatik bueltan. Hala ere, Belgikako gobernuak European bizitzeko baimena aitortu zion, nahiz eta Espainiako gobernuak haren estradizioa eskatu.

Espainiako Barne Ministerioak adierazi zuenez, atxiloteta hauek ETaren azpiegiturarekin dute zerikusirik.

Atxiloteta hauek direla eta, asteartean bertan kale agerraldia egin zen Arrasaten, Amnistiaren Aldeko Gestorek deituta.



## Lapurreta Legarren

Asteartean, goizeko 05:30ak aldean, lapurrak sartu ziren Elkorok Legarren duen dendan. Hollywoodeko estiloan, furgoneta bat erabili zuten eskaparetea apurtu eta dendan sartzeko, txiki-

zio izugarria eraginez. Horrekin batera, musika kateak, telefono mugikorak, bideo kamerak eta bestelako tresna elektronikoak ere eraman zituzten.



# Arrasateko OSASUN GIDA

## AKUPUNTURA

- INTEGU (Masajea, Osteopatia) Iturriotz kalea, 10 -1 ..... ☎ 943 77 13 34

## GAIBERRITZEA-ERREHABILITAZIOA

- FRANCISCO JAVIER LOPEZ DE MUNAIN. (Medikua) Zaldibar, 4-1..... ☎ 943 77 14 72

## ERREUMATOLOGIA

- GOROSARRI - TROJAOLA Dreak. Zaldibar, 1-1..... ☎ 943 77 00 40
- JUAN RAMON ARANDO. Erdiko kale, 22 -1 ..... ☎ 943 79 72 16

## FISIOTERAPIA

- ANDONI ETA MARIA BASTERRETxea ERREHABILITAZIO ZENTRUA Olarte 43 Bis ..... ☎ 943 77 03 96

## LOGOPEDIA

- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Erdiko kale, 37 ..... ☎ 943 79 79 46
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga, 10 ..... ☎ 943 79 48 77

## MASAJEAK

- EUGENIO RAMOS Bizkaia Etorbidea, 12- 2 Esk..... ☎ 943 77 06 22
- JOSE LUIS ABUIN San Josepe, 10 Behea, D (Kiroldegian ere bai) ..... ☎ 943 77 01 33

## ODONTOLOGIA

- ADUR ODONTOLOGIA INSTITUTU MEDIKUA Iturriotz, 35..... ☎ 943 79 95 60
- ARRASATE HORTZ KLINIKA Iturriotz, 17-1 Ezk..... ☎ 943 79 72 23
- ARREGI HORTZ KLINIKA zerkaosteta, 19 behea ..... ☎ 943 79 71 90
- GIPUZKOAKO ODONTOLOGIA ESPEZIALITATEEN ZENTRUA Iturriotz, 7 Bis ..... ☎ 943 79 73 88
- IRIARTE IRURETA, ANE MAITE Iturriotz, 7- 1 ..... ☎ 943 79 69 45
- LOPEZ DE GOIKOETXEA (Goiz eta arratsaldez) Alfonso X. Jakintsua, 5..... ☎ 943 79 17 74
- LORENZO MARTIN, RAFAEL Zarugalde, 3- 1.-B..... ☎ 943 77 12 63

## OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

- UDALAITZ MEDIKU-ZENTRUA (Analisi klinikoak, R-X) Ferrerías, 56-Behea ..... ☎ 943 79 44 22

## OPTIKA

- ARRASATE OPTIKA (Optika, Optometria eta kontaktologia) Kontzeziño, 6 ..... ☎ 943 79 25 98
- LARRAÑAGA OPTIKA (Optika eta optometria) Juan Carlos Guerra, 1 ..... ☎ 943 79 29 95

## ORTOPEDIA

- ORTO LAGUN ORTOPEDIA Kontzeziño, 2 ..... ☎ 943 79 89 34

## OSTEOPATIA

- NEREA BENGEOA (Bizkarreko minak eta lunbalgiak) Azoka kalea, 4 ..... (Mobila) ☎ 989 58 66 89

## OTORRINOLARINGOLOGIA

- ZULUETA ETA NAVARRO Dreak (Arratsaldetan). Zerkaosteta, 17 behea ..... ☎ 943 79 20 18

## PODOLOGIA

- AZKARATE MORRAS Uribarri etorbidea, 5 behea ..... ☎ 943 79 53 63

## PSIKOLOGIA

- TXOMIN NUÑEZ Olarte, 10 ..... ☎ 943 79 88 16
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga, 10 ..... ☎ 943 79 48 77
- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Erdiko Kale, 37..... ☎ 943 79 79 46

## UROLOGIA

- LLUCH, ALBERTO (Centro Médico Udalaiz) Ferrerías, 56..... ☎ 943 79 44 22

## Udalak eta soldadugaien zerrendak

Lau urte pasatu ondoren ezer ez zuela bidaltzen, Arrasateko Udala berriro hasi da herriko soldadugaien urteroko errolda Espainiako Armadari bidaltzen. Alkateak esan duenez, Donostiako Komandantziara joan behar zirenei zerbitzua eskaintzeagatik egin du hau. Erabakiak hautsak harrotu zituen azken osoko bilkuran, uztailearen 27an.

Aurten 188 gazte arrasatearren izenak daude Arrasateko Udalaren idazkaritzan, 2000. urteko deialdian sartuko direnak. Hauetatik badirudi 11k bakarrik dutela soldadutza egiteko asmoa. Gainerako guztiak alegazioak aurkeztu dituzte, 144 luzapena eskatuz eta 11 gaitasunen bat dutela adieraziz.

## Arartekoak ijitoak erroldan sartzeko gomendioa egin du

Arartekoak lau orrialdeko idazki bat bidali zien uztailearen bukaeran SOS-Arrazismo eta Arrasateko Udalari. Idazki horretan portugesak herriko erroldan sartzea gomendatzen zion udalari.

Uztailearen bukaeran Arrasateko Udalak Zaldispetik irteko bigarren agindua eman zien ijitoei. SOS-Arrazismo erakundeak bildutako diruari esker eta udalak oporretan egin zezakeenaren beldur, aldi baterako Portugalera joatea erabaki zuten portugesez.

Tarte horretan Euskal Herriko Auzitegi Gorenak baztertu egin ditu Zaldispe uzteko aginduen kontra SOS-Arrazismok aurkeztutako errekursoak.



Abuztuan kanpoan izan eta gero, ijitoak Zaldispera itzuli dira.

Oporren ostean ijitoak itzuli egin dira. Euretariako bat lanean ari da Antzuolako erakuntza enpresa batean. Horrez gain, badirudi Portugalgo kontsulak ere parte har dezakeela bere herikideen alde.

Uztailearen azken egunetan

SOS-Arrazismok auzitegira eraman zuen Jose Mari Loiti, Arrasateko alkateak ijitoekin izan duen jokabidearengatik. Auzi hori dela eta, ostiral honetan Blanca Roncal zinegotzi sozialistak deklaratu beharko du Bergarako Auzitegian.

# HIZKUNTZEN MUNDUA



Informa zaitez orain !

**CIM**  
HIZKUNTZAK-IDIOMAS

AHIZKE S.COOP  
Avda. de Alava, 4 - 20500 ARRASATE (GIPUZKOA)  
Tel.: 943 - 712055 Fax: 943 - 712181  
E-mail: secretaria@cim-idiomas.com  
http: www.cim-idiomas.com  
Oiakua, 14 - 20560 OÑATI (GIPUZKOA)  
Tel. 943 - 716000



Matrikula  
Epea Zabalik  
98-99 IKASTURTEA

- ▶ Hizkuntza eta maila guztiak.
- ▶ Ordutegi malguak.
- ▶ Mediateka zure esku dohainik.
- ▶ Haur, gazte eta helduentzat.
- ▶ Multimedia sistemak.

bai & by

# Loramendi kirolak

# %30

- Kirol jantziak
- Prakak
- Sudaderak
- Nikiak eta abar

# BEHERAPENAK!

## Zapatilak

# %20-50

San Andresen eta Garibain



OP  
L I  
O Z  
S Z  
S E  
A R  
C I  
A

*Labean egindako italiar pizzak*

Mila esker emandako harrera beroagatik.

Nahi bezala atenditu ez zaituztegunoi barkamenak.

Merezi duzen zerbitzua eskaintzeko prest gaituzue.

**IRAILAREN 5EAN BERRIZ ZABALIK**

*Zatozte eta gozatu gure italiar pizzak dastatuz*

Arima Zuri, 2

ARRASATE

Tel.: 943 79 45 64

## AMETS GOXOAK IZAN!

Joseba eta Josune, bihar larunbata ezkonduko dira Dorletan. Josebak bere ametsetako neskarekin ezkonduko da, baina Josunek, ondo pentsatu ote du? Amets gehiegi egiten duen norbaitekin ezkontzea ere ez da oso komenigarria izaten! Hala ere, eta amets goxoak izan ditzaten, zorionak lagunen partetik.



## HIRU HERRITAR OREGONEN

Leire Erañak eta Jone Agirrek tril egin zuten txiripaz Jokin Letonarekin Portland-eko kaleetan. Neskek uztaila igaro zuten

Oregoneko hiriburuan, familia amerikarrekin. Jokinek, aldiz, urte erdi egin du paraje hartan. Denak ere pozik etxeratu dira.

## EUSKAL ASTEA ORTONOVON

Lore Gazteak eta Arrostaiz dantza taldeak Italian izan ziren abuztuan, Ortonovo herrian. Italiarrek

sekulako harrera ona egin zieten. Gogoan izan Ortonovo eta Arrasateren arteko harremanak orain 14 urte hasi zirela.



**beatriz**

*oinetakoak  
eta poltsak*

Erdiko kale, 11  
Tel.: 943 79 14 33  
ARRASATE

**IRATI TABERNA**

Ferrerias kalea • Tel.: 943 79 56 11  
ARRASATE

**M  
ARENZA**

Altzariak  
Diseinua  
Apainketa

Bizkai, 1 • ARETXABALETA  
Tel.: 943 79 08 07





## LEHEN HARRIAK

Uztailaren 24an bazkaria egin genuen Arkoko langileok Gabiriako elkarte batean. Sukaldariak, primerakoak, Iñigo Andola eta

Jon Aldanondo izan ziren. Ondoren Jonek etxea eraikiko duen tokira joan ginen, lehen harriak ipintzera.

## IZENA

### Anabel Urzelai

37 urteko oñatiarra da Arrasateko Institutuko zuzendari berria. Anabel, Ingeles Filologian lizentziatua da eta lehen ere institutuan aritu da irakasle lanetan. Orain, berriz, bere ikasgelaz gain, institutuko ikasle guztiak izango ditu bere ardurapean. Zorte on!




## NIAGARAN BISITAN

Lagun talde hau Iparrameriketako ekialdean ibili zen pare bat astebetez. New York, Ottawa, Montreal, Quebec eta Boston, besteak beste bisitatu zituzten. Baita Niagarako urjauziak ere. Ezkerretik hasita, Iñigo Gonzalez, Alex Azkarate, Iñaki Aierbe eta Ainhoa Menika.

### ZUBIZARRETA LANTEGIAK

Gipuzkoa Etorbidea, 22  
ARRASATE  
Tel.: 943 79 15 65



### MARKO-JARTZEAK ALDEDI

Biteri, 8 • ARRASATE  
Tel.: 943 79 13 05 • Faxa: 943 79 13 84

### FELIPE MADINA ZURAK

Zarugalde, 40 ARRASATE  
Tel.: 943 79 13 78

# Errasti beirategia

## Kristala eta eraikuntzako materiala

Calixto Errastik iturgintzako negozioa zuen Olarte kalean, gaur egun Errasti kristaldegia dagoen tokian. Erretiroa hartu zuenean, orain dozena bat urte, hiru kidek hartu zuten negozioaren ardura, Errasti izena gordez. Calixto iturgina zen, baina poliki-poliki kristalaren esparruan sartu zen. Gauregun, Calixtok hasitakoak beste tamaina bat hartu du. Olarte kaleko lantegia kristaldegia da eta Araba etorbideko biltegian eraikuntzarako materialak saltzen dira. Biltegian zein beirategian, zortzi lagunek egiten dute lan guztira.


### BEIRATEGIA

Errasti beirategiko furgoneta-txoa Arrasate guztiak ezagutzen du. Han-hemenka ibiltzen da egunero kristala garraiatzen. Partikularrak, eraikileak, arotzak, lantegiak, iturgin autonomoak edo iturgin taldeak..., mota guztietako bezeroak dituzte. Arrasaten eta inguruko herrietan egiten dute lan

batez ere. Kanpoan ere badituzte bezeroak, baina nahiago dute herrian lan egin. Etxetan beira lehioak, biselatuak eta lehio eta ateetako beirak jartzen dituzte batez ere.

Jose Luis Ezkurra, negozioaren bazkideetako batek dioenez, beira edo kristalaren erabilera asko aldatu da, batez ere, diseinuari eta kalitateari dagokienez. "Lehen lau aldiz apurtzen zen kristala, orain behin apurtzen da, bikoiitzak direlako, gogoragoak direlako, e.a. Diseinu aldetik ere, izugarri aldatu da. Jendeak gauza berriak nahi ditu. Adibidez, orain gizon baten silueta den ispilua jarri behar dugu etxe batean. Horrelakorik ikusten zen lehen?"

Beira oso gutxi manipulatu dute. Aholkularitza lana eta instalazioa egiten dute. "Orain beira lantzeko lantegi espezializatuak daude. Guk bezeroarekin adostutako ideia ematen diegu eta eurek egiten dute. Gauza benetan poli-



Jose Luis Ezkurra beirategian.

tak egiten dira gaur egun beirarekin".

### BILTEGIA

Sektore bereko materialarekin lan egiten badute ere, biltegian lan egiteko era bestelakoa da. Han eraikuntzako materiala saltzen dute: hodiak,

iturriak, etab. PVCz eginiko eraikuntzako materiala ere saltzen dute, baina ez dute manipulatu. Leihoetan ez dira oraindik sartu, horretarako beste azpiegitura behar da eta. Oraingoz, daudenetan segitzeko asmoa dute Errasti beirategian.



# LASAGABASTER-en

## AUKERARIK ONENA



**DOCKERS®**  
pants by  
Levi Strauss & Co.

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

...esan zeuk ere  
**BAI EUSKARARI!!**

**ARRASATEKO ERDU  
 AEK EUSKALTEGIA  
 EUSKARA IKASTAROAK**

Maila guztiak  
 EGA eta ALFABETATZE  
 Matrikula epea: Urriak 2

**INFORMAZIO ETA MATRIKULA  
 ERDU AEK EUSKALTEGIA**

Garibai Kalea, 14, 3. Tel.: 943 77 03 69

UDALAREN LAGUNTZAZ  
 BEKA SISTEMA

**Euskarak AEK behar du,  
 AEK-k zu behar zaitu**

**izena eman**  
*euskaltegi eta barnetegietan!*

**aeke**



**AZKAR  
 IBILI!!**

**Iragarki hau  
 SAIOAra ekarrita,  
 aerobic saio bat  
 dohainik!!**

## SAIOA GIMNASIOA

Zuzendari Teknikoa: Iñaki Muñoz

Kirol Tekniko Gorena • C.N. 3 D.A.N Entrenatzaile Nazionala

### AEROBIC

Goizez eta arratsaldez  
 Ikasiak eta hasi berriak

### KARATE

Haurrak (5 eta 9 urte)  
 Gaztetxoak (10 eta 13 urte)  
 Helduak

### GIMNASTIKA

3. adineko mantenimendua.  
 Goizez eta arratsaldez

### SAUNA

### SOLARIUM

### MASAJEA

- Osteopatia
- Kirol masajea
- Drenaje linfatikoa
- Ziatikak
- Kiromasajea

### MUSKULAZIOA

- Kulturismoa
- Kirol prestakuntza
- Fitness
- Gaiberritzea (errehabilitazioa)

### SQUASH



**ORAIN HAURRENTZAKO AEROBIC-A**

Kontzeziño, z/g, tunela • ARRASATE • Tel: 943 79 97 31

# Izar nomaden

Funtzionarioek, burokratek eta poliziek arabiar jatorriko izenez identifikatzen dute, baina berak nahiago du izenik ez izatea. Zibilizazio zibilizatuaren arauak ez ditu oso gustuko. Bizitza eta harreman pertsonalak beste modu batean antzematen ditu. Paperetik kanpo, ohikotasunetik at. Horregatik, nahiago du pertsonak begiekin eta bihotzarekin ezagutu. Horregatik, ezagutzen dutenek Mister X deitzen diote.

Sustrai bakarrak bere jatorri berebereak utzi dizkionak ditu. Airez eginiko sustraiak. Alde batetik bestera joatera bultzatzen duten sustrai paradoxiko eta ikustezinak, inori eta ino-

ra lotzen ez direnak. Haiei jarraituz akaso, bere ama Afrika utzi zuen orain hamahiru urte eta mundua ibiltzeari ekin zion. Europako iparraldetik Euskadiraino toki guztietan ibili da eta ez da inon gelditu. Izarrak estalki, lurra ohe eta kalea etxe ditu. Bizitzaren aurrean hartutako erabaki zuhurra izan da berea. Bere aukera.

## LEGEZ KANPO

Azken hilabeteotan Gipuzkoan barrena ibili da. Iragan San Joanetan txanoak saltzen ikusiko zenuten askok, baina ez nahastu. "Hau ez da nire bizitza —esaten du harro—. Jendeak txanoak saltzen ikusten zaitu eta *koitadua* pentsatzen du. Jateko hori edo beste zer

edo zer egiten dut, baina jendeak ikusten duen irudia gezurrezkoa da".

Kalean bizitzea aukeratu du "merezi duelako. Zertarako egin lana? Diru gehiago izateko? Auto handiagoa izateko? Gainera ez dut paperik, legez kanpo nago. Nahita ere, ez lidakete lanik emango".

Lanak ez du gizonaren bihotza betetzen, Mister Xen esanetan, poltsikoa bakarrik. "Bizitza osoa lanean pasatu, zertarako? Zure hilobira lorak eraman ditzaten? Horrek ez du inongo balorerik —esaten du, ziurtasunez—. Lana egitea denbora gustuko gauza batean pasatzeko, bai. Baina lana egitea ni zu baino gehiago izateko, sekula ere ez".

## BIZIPENAK GUREAN

Euskadin gustura sentitzen dela esaten du. Norvegiako hiriburuan hasi zuen hamahiru urteko bidaian aurkitutako gauzarik onenetariko del dio. "Jendea eskuzabala da, baina gehien gustatzen zaidana da hemengo pentsakera eta hitz egiteko era. Gazteak desberdinak dira, Europako beste herri batzuetakoekin alderatuz gero. Idealak dituzte". Denbora laburra badarama ere, dagoeneko izan du arazorik Ertzaintza eta polizia-ekin, paper barik dabilelako. Bere amesgaiztorik txarrena Polizia Nazionala da. "Kokoteraino nago Polizia Nazionalarekin. Alde batera joan, bestera joan, beti bukatzen dut Polizia Nazionalaren komisaldegian. Baina eurek ez

dute nire bizitzaren gaineko kontrolrik. Boterearen kontra egitea da nirea. Egunen batean poliziarik gabeko mundua ikustea gustatuko litzaidake".

Arrasaten udal zerbitzu sozialengana jo zuela kontatzen du, bazkari beroa jate-



# zeinupean

ko asmoarekin. Udaletzeko sarreran, goiko solairura igo behar zela esan zioten. "Eskailera mordoa igo behar izan nituen. Eskailera asko! Hara heltzerakoan, gizabide handiz, zera esan zidaten: 'txartel bat eman behar dizugu,

beste herri batera joan zaitetz'. Beti gertatzen da horrela, Alemanian, Frantzian... baita Euskadin ere. Baztertu egiten zaituzte. Orduan, jaitsi eta sarrerakoari esan nion: 'hurrengoan sarreran esan esateko duzuen eta horrela ez dut eskailerarik igo behar-ko!'"

## EUROPA MALDAN BEHERA

Egungo Europaren nortasun zeinuak, gainbeheraren zeinuak dira, Mister Xen esanetan. "Jendeak bere lagun hurkoa baino gehiago izan nahi du: dirudunagoa, guapoagoa... Irudiaren morroiak dira. Ispiluak agintzen du. Hori guztia kakazaharra da. Europan arrazakeria dagoela uste duzue, baina ez da existitzen. Konplexu bat besterik ez da".

Kontsumoaren gizarteak saltzen dituen balore hutsaletara belaunikatzen dira pertsonak, Xen ustez. "Arrakasta lortzea da hemengo gizartearen obsesioa, baina arrakasta ez da arropa asko edukitzea, baizik eta nor bere buruarekin ondo sentitzea. Arrakasta barruan eramaten den sensazioa da".

Lehen Munduko gauza gutxik egiten diote ihes Mister Xen mihi zorrotzari. Dena den, ez da dena kritika, munduaren bilakaerari jarraituz, bestelako mundua erraz irudikatzen du eta. Mundu berri horretan, europarrak Afrika eta Latinamerikara itzuliko dira lan egitera. Egia esan, horixe baita gazte asko azken urteetan egiten ari direna.


## UDABERRIKO ARROSAK

Esan daiteke, asko esatea bada ere, Mister Xen ahotik Hirugarren Munduak hitz egiten duela. Baikorra da munduaren etorkizunaz, baina argi du ez dagoela Europaren eta lurralde aurreratuen eskuetan. "Europako kultura, mundu zibilizatua, NATO osatzen duten herrialdeak, Estatu Batuak, atzerantz doaz. Aurrerapen teknologiko eta aisialdirako ekitaldi mila asmatu dituzte, baina atzera doazela ikusten da. Hirugarren Munduko gazteria udaberriko arrosak dira. Fede handiarekin datoz, izpiritu handiarekin. Azkenak izan gara beti. Horregatik ikusten dugu geu-

re aurrekoa eta atzekoa, oroi-mena dugu. Aldiz, Lehen Munduak ez du inoiz atzera begiratzen". Politikoez ere ez dute zer eginik. "Politikoez zinikoak dira, baina itsuak. Mugak nahi adina jartzen dituzte, baina gure lurra bat da. Zergatik ez dugu bandera bakarra? Denak bizi gara mundu berean, anai-arrebak gara. Datozen belaunaldiak aldatuko dute mundua".

Udaberriko arrosak noiz-bait zabalduko dira, euren kolore eta usainekin mundu hobea eraikitzeko. Horren esperoan, munduari bueltaka ibiliko da Mister X.

-----  
Marian Porcel ■



US Postal taldeko sendagilea

## KEPA ZELAIA

**“Argi dago Tourraren aurkako maniobra izan dela”**

— Zer gertatu da Tourrean?

— Gauza asko gertatu dira, ez da bakarrik dopinarena izan. Ez dut uste txirrindularien, kirolaren edo sendagileen aurkako zerbait izan denik, baina ez da dopinaren kontrakoa izan.

— Beste kirolak baino gehiago kontrolatzen da?

— Gehiago edo ez, kontua da beste kirolekin ez direla horrenbeste sartzen. Txirrindularitzan kontrol asko egiten dira. Urtero talde bakoitzak 8-10 kontrol egiten ditu. Txiza kontrolak agian 40 egiten dira. Txirrindularitza kirol garbia da.

— Gertatutakoak Tourraren ospe galtzea ekar lezake?


— Argi dago Tourraren aurkako maniobra izan dela eta min handia egin diola.

— Sendagileek erabaki bateraturik hartu duzue?

— Tourrean ohar bat atera zen, baina egia esan, ez daukazu gauza handirik esateko, azkenean zure lana bete baino ez duzu egiten.

— Presio handia jasaten duzue zuen lanean?

— Zerrenda errespetatu baino ez dugu egiten. Baina zerrenda egiten dutenek ez dute oinarri zientifikorik horretarako. Batzorde horietan profesionalak egon beharko lirateke. Dopinaren inguruan zurikeria asko dago.



# 1998-99 denboraldia

Hogeita bi jokalaria izango ditu Juanina Garaik, denboraldi honetako entrenatzaileak, preferente mailako futbolariak.



**Dabid Luri**

Atezaina  
22 urte  
Arrasatearra  
Laugarren urtea  
preferente mailan.



**Iban Da Silva**

Atezaina  
19 urte  
Arrasatearra  
Lehenengo urtea  
preferenten, gazte mailatik igo da eta.



**Gonzalo Espel**

Defentsa  
23 urte  
Arrasatearra.  
Laugarren urtea  
preferente mailan.



**Asier Luengo**

Erdilaria  
22 urte  
Arrasatearra.  
Hirugarren urtea  
preferente mailan.



**Beñat Apraiz**

Erdilaria  
24 urte  
Arrasatearra.  
Laugarren urtea  
preferente mailan.



**Iñigo Arkauz**

Erdilaria  
19 urte  
Aretxabaletarra.  
Lehenengo urtea,  
gazte mailatik igo da eta.

# Adiko Preferente mailako Mondra

aldean. Sei berriak izango dira, guztiak gazte mailatik  
goak. Beste guztiak Mondran aritutakoak dira. Igande

honetan jokatu dute denboraldi honetako lehen parti-  
da, 17:00etan, Baskoniaren aurka, Atxabalpen.



**O. Sanchez**  
ezaina  
10 urte  
Arrasatearra  
Lehen urtea  
preferentean.



**Ruben Rueda**  
Defentsa  
23 urte  
Arrasatearra  
Laugarren urtea  
preferente mailan.



**Argider Arana**  
Defentsa  
20 urte  
Arrasatearra  
Hirugarren urtea  
preferente mailan.



**Mikel Larrañaga**  
Defentsa  
21 urte  
Arrasatearra  
Hirugarren urtea  
preferente mailan.



**Juan Sanchez**  
Defentsa  
19 urte  
Arrasatearra  
Lehenengo urtea  
preferenten, gazte  
mailatik igo da eta.



**J. Errasti**  
Erdilaria  
18 urte  
Arrasatearra.  
Lehen urtea  
preferente mailan.



**Agustin Calleja**  
Erdilaria  
23 urte  
Arrasatearra.  
Laugarren urtea  
preferente mailan.



**Xabi Mondragon**  
Erdilaria  
19 urte  
Arrasatearra.  
Lehenengo urtea,  
gazte mailatik igo  
da eta.



**Ander Bereziartua**  
Erdilaria  
19 urte  
Arrasatearra.  
Lehenengo urtea,  
gazte mailatik igo  
da eta.



**Joseba Garai**  
Erdilaria  
22 urte  
Arrasatearra.  
Bigarren urtea  
preferente mailan.



**A. Altube**  
Erdilaria  
18 urte  
Arrasatearra.  
Lehen urtea  
preferente mailan.



**Rafa Gartzia**  
Erdilaria  
21 urte  
Arrasatearra.  
Bigarren urtea  
preferente mailan.



**Gorka Dueñas**  
Erdilaria  
20 urte  
Arrasatearra.  
Lehenengo urtea  
preferentean. Iaz  
Linense taldean.



**Raul Leiba**  
Aurrelaria  
25 urte  
Arrasatearra.  
Laugarren urtea  
preferente mailan.



**Oxel Apraiz**  
Aurrelaria  
22 urte  
Arrasatearra.  
Hirugarren urtea  
preferente mailan.

**SEBASTIAN URIBETXEBARRIA** (MARIANISTA, SAN CLEMENTE PRO

# “Baserritarren garapen

Urazpian dagoen Urkulu baserrian jaio zen Sebastian Uribetxebarría. Gazte zelarik marianista egin eta 1973an, orain dela 26 urte, Kolonbiara joan zen. Hainbat hiritan hezkuntzan lan egin eta gero, sustraletara itzuli nahian, Guatica herri txiki eta baserri girokoan aurkitu zuen lekua orain hamazazpi urte. Gezurra badi-rudi ere, euskaraz ondo baino hobeto moldatzen da oraindik, baina Guaticako herrian bultzatu duen garapen proiektuari buruz hitz egitekoan, lurralde bero hartako hizkera goxoaren esamoldeak isurtzen zaizkio.

— Nola bizi zenituen lehenengo urteak Kolonbian?

— Urte gogorak izan ziren, kultura oso bestelakoa delako. Hango gazteei izugarri gustatzen zaie adarra jotzea eta barre egitea. Ikaslea, ez horrenbeste. Ez dute diziplinarik, ezta ganorazko azpiegiturarik.

— Irakasteaz gain, ikasketak ere burutu zenituen, ezta?

— Ni baserritarra naiz eta baserri giroko inguru batera joan nahi nuen. Nagusiek baimena eman zidaten nekazaritza eta abelzaintzarekin lotutako teknologia ikasteko. Hiru urtean nekazaritzaren ezagupen teknikoak eta tropikoaren berezitasunak ikasi nituen. Azkenean nagusiek nekazaritza proiektu bat garatzeko aukera ikusi zuten, eta Pereira probintziako Guatica herria aukeratu zuten.

— Guatican San Clemente Institutuko zuzendaritza hartu zenuen.

— Bai. 82a ezkerro institutuko errektorea naiz —han ez da esaten zuzendaria, izen guztiak ponposoak dira eta—. Sartu nintzenean, 60 ikasle besterik ez zebiltzan, hiru mailatan banatuta. Oso eskola txi-

kia zen, barruan patio txiki batekin, eta gela gutxi batzurekin. Batxiller normala edo akademikoa ematen zuten, bizi ziren ingurunea inolaz ere kontuan hartu barik. Baserrian edo etxean galdetzen zietenean nola konpondu ortuan gertatutako zerbait, edo nola sendatu oiloen gaixotasunen bat, gazteek ez zekiten zer egin. Argi ikusten zen, beraz, baserri girora egokitutako batxilerraren beharra zegoela.

— Institutuaren birmoldaketa, herriaren garapenerako hazia izan zen?

— Hori esan daiteke. Nekazaritza eta Abeltzaintza Institutuari esker, baserritarrek uzta hobeak lortzeko bideak dituzte. Hala ere, produktuak sal-

“Lantegiak ikasleek eta baserritarrek erabiltzen dituzte. Ikasleek teknologia erabiltzen ikasteko, baserritarrek euren produktuak lantzeko”





( INSTITUTUKO BULTZATZAILEA )

# soa bultzatu nahi dugu”

tzeko orduan, bitartekarien beharra dute oraindik. Gure baserriarrek ez zuten gehiago eta hobeto produzitu nahi, prezio berdinean saltzeko. Beraz, nekazaritza industria gain, merkaturatzea ere landu behar genuela ulertu genuen.

— **Orduan Acopio zentrua zabaldu zenuten.**

— Bai. Zentruak aukera ematen du baserriarren produkzioa merkatura bideratzeko. Produktuak bildu, garbitu, sailkatu, paketatu eta prezio onak dituzten azoketara bidaltzea da zentruaren ardurara. Bitartekaririk gabe, baserriarrek salmentarekin irabazten du. Zentrua eraiki dugu, baina oraindik antolakuntza lanetan dago.

— **Institutuko lantegiek egiten dute lan?**

— Bai. Iaz Nekazaritza eta Abelzaintzako Institutu Teknologikoko lehen promozioa irten zen. Gaur egun, bi lantegi ditugu lanean: barazkien eta esnekien. Ikasleek eta baserriarrek erabiltzen dituzte lantegiak. Ikasleak teknologia erabiltzen ikasteko, baserriarrek euren produktuak lantzeko. Gaur egun, esnekien lantegian 50 bat ikasle dabil. Eskola orduetatik kanpo, 20 bat emakume langabek

— **Zer falta da garapen proiektua burutzeko?**

— Abuztuan okelen lantegia eraikitzen hasiko gara. Horrez gain, hiltegi bat eta ur biltegi bat eraiki nahi ditugu. Baserriarrek hestebeteak egin ahal izango dituzte txerri eta hegazti okelarekin. Beste helburu garrantzitsu bat da eskola lan esparruarekin uztartzea.

— **Zer falta da garapen proiektua burutzeko?**

— Abuztuan okelen lantegia eraikitzen hasiko gara. Horrez gain, hiltegi bat eta ur biltegi bat eraiki nahi ditugu. Baserriarrek hestebeteak egin ahal izango dituzte txerri eta hegazti okelarekin. Beste helburu garrantzitsu bat da eskola lan esparruarekin uztartzea.

Gazteek ezin dute unibertsitate batera joan dirurik ez dutelako, beraz, enpresa txikiak sortzeko aukera izan dezaten nahi dugu. Orain kolonbiar batzuk Saiolanekin ari dira lanean Pereiran enpresa *inkubagailu* bat eratzeko. Oso interesatuak gaude horretan, eta euren harremanetan jartzea gustatuko litzaidake.

— **Etorkizunerako proiekturik?**

— Granjarako abereak erostea eta 10 milioi pesoko fondo bat antolatzea, enpresak eratu nahi dituzten gazteei interes baxuko prestamoak egiteko. ■



Zatoz eta  
ezagutu  
gaitzazu!



Aldibi autoak, S.A.



Izar autoak, S.L.

VOLVO

Auto Suecia



mazda

Musakola autoak, S.L.



GALLOPER

Aldikar autoak, S.L.



Co-Car, S.L.



HYUNDAI

Musakola autoak, S.L.



MITSUBISHI  
MOTORS

Aldikar autoak, S.L.

ALDIBI AUTOAK, S.A. • Zigorrola, 1 • ARRASATE • Tel.: 943 71 20 02 / Faxe: 943 79 65 65

# Argentinako zapore gozoa



Goikobaluko kideak Iguazu urjauzi zoragarrien aurrean.

Abuztu honetan euskal kantuek argentinarrak bat baino gehiagoren zirrara piztu dute Argentina aldean. Izan ere, Goikobalu abesbatzak eskaini dituen hamaika kontzertuek sekulako harrera izan dute lurralde haietan.

Goikobalu abesbatzako kideek abenduan Argentinara kantatzera joateko gonbita jaso zutenetik, ilusioz bizi izan dute egun hori; noiz iritsiko zain.

Entseiu, ahalegin, eta lan dexenteren ostean, abuztu hasieran 62 lagunek hartu zuten Argentinarako hegazkina. Eta handik bueltan, taldeko edonori bidaia zer moduz joan den

galdetuz gero, aho batez erantzango dute: "zoragarri". Oso pozik eta ilusioz beterik bueltatu dira, hemezortzi eguneko bidaiaren ostean.

Goikobalukoak hara joandako euskaldunen oinordekoekin izan dira. Kontatzen dutenez "oso hunkigarria da ikustea zer nolako jakinmina eta maitasuna duten Euskal Herriarenganako. Dena jakin nahi zuten: nongoak ginen, gure abizenak, nola bizi garen..., dena".

Abesbatzako partaideek diotenez, bidaia honek izan duen hoberena jendearen harrera izan da "euskal etxe-

etan jendeak maitasunez hartu gaitu. Duten guztia eskaini digute. Abesten genuenean, sarritan negarrez hasten ziren, hunkituta. Batez ere 'Aita Gurea' kantatzen genuenean. Hori azaldu ezin den sentazioa da. Zoragarria".

Goikobalu abesbatzako hamaika kontzertu eskaini ditu Argentinan zehar: iparraldetik hegoalderaino mugitu dira. Eta diotenez, primerako maila erakutsi dute. Lau hilabeteko entseieuek fruitu onak eman bide dituzte. Baina turismo egiteko ere aprobeztatu dute. Iguazuko urjauziak ikustera hurbildu ziren eta Brasil alde-

ra ere egin zuten salto.

Abesbatzako kideek ez dute esku hutsik bueltatu nahi izan. Argentinako zuhaitz tipikoa ekarri dute: ombu izenekoa. Zuhaitza Santa Barbara aldean landatzeko asmoa du abesbatzak, festa berezi batean, Argentina beti gertu izateko. Gainera, Goikobalu Arrasatek esakinitako laguntza eskertzeko kontzertua emateko asmotan dabil. Itxaron egin beharko dugu, beraz, Goikobaluren kantak entzuteko.

Dagoeneko pentsatzen hasiak daude lau urte barru berriz ere esperientzia errepikatzea.

**Pavimentos AGR**  
ARROZTEGIA

Mota guztietako zoruak • Lijatu eta barnizatuak • Erradapiak • Leihoak • Ateak  
Eskailerak • Armairu enpotratuak eta abar  
MATERIALEN SALMENTA

**Erakusketa eta biltegia:**  
Kale Txiki, 3 - behea • ARRASATE  
Tel.: 943 77 11 20 • Faxa: 943 77 11 20

**Obstetrizia eta Ginekologia kontsulta**  
**Serrano Doktorea**

HAURDUNALDIA AMNIOZENTESIA ANTISORKUNTZA	MENOPAUSIA BASEKTOMIA BULAR PATOLOGIA
--	---

**SAN MARTIN OSASUNDEGIA**  
Ramón M. Lili, 2 • BERGARA • Tel. 943 76 59 39 / 943 76 59 72 • Fax: 943 76 25 72

IBAN GONZALEZ, EKON TALDEKO ABESLARIA

## “Ez dugu utzi behar euskara talde folklorikoentzat”

Ekon. Indarra duen izena da. Izan ere, bere atzean indarra duen taldea bizi da. Uda honetan Euskal Herrian alderik alde ibili dira, kontzertuetan duten guztia ematen. “Zurrubilo kaotikoa” izeneko diskoko ale guztiak saldu dira. Orain beste argitaraldi bat egingo dute. Gorantz doa Ekon.

— Nola joan da Ekonentzat uda partea?

— Aste bakarra izan dugu oporretarako. Jairik jai ibili gara kontzertuak ematen. Gasteiz, Bilbo...

— Jendeak nola erantzun du?

— Oso pozik gaude jendearen erantzunarekin, batzuetan gehiegizkoa eta guzti izan da guretzat. Kilikagarria da lau mila pertsonaren aurrean jardutea eta haien aurpegietan zirrara ikustea.

— Euskadi Gaztean lehen tokian zaudete. Zer esan nahi du horrek?

— Kontzertuetan asko nabaritzen da, jendeak abestia ezagutzen du eta. Hala ere, irratik formulak erre egin dezake abesti bat. Kontuz ibili beharra dago, jendea neka ez dadin.

— Ekon-en indarra zuzenean dago batez ere?


— Bai, gure kontzertuetan musika eta eszenografia elkarrekin doaz. Dena zaintzen dugu. Datorren urterako gauza berriak prestatu nahi ditugu.

— Zer asmo duzue urte honetarako?

— Negu aldean etenaldi bat egingo dugu, indarrak hartu eta Aste Santutan disko berria kaleratzeko.

— Orain arte kantu guztiak euskaraz egin ditu Ekonek. Ez duzue pentsatu beste hizkuntza batzuetan kantatzea?

— Egia da euskara muga bat dela. Mer-



katu berrietarako atea ixten ditu. Guk hainbat diskoetxeren eskaintzak jaso ditugu gaztelaniaz kantatzeko, baina oraingoz ez zaigu interesatzen.

— Euskararen militantzian, beraz?

— Beno, guk euskara dakigu eta guk abesten ez badugu, nork egingo du? Gainera ez dugu euskara talde folklorikoentzat bakarrik utzi nahi.

— Musika gogorra eta drogak. Badi-rudi elkarrekin joan izan den bikotea dela. Horrela da?

— Beti egon dira rock&roll-aren idoloak drogaren ondorioz hil direnak. Horrek lotu ditu bi esparruak. Bestalde, batzuek pentsatzen dute zuzeneko emanaldietan drogaren bat hartzen ez badugu, ezin duzula agertokiaren gainean martxari eutsi, eta ez da horrela. Ni kokoteraino nago erantzuteaz Ekoneko partaideok ez dugula ezer hartzen. Norberak nahi duena egin dezake, baina nik nahikoa dut musika den moduan sentitzeaz.

“Agertokira igotzeko ez duzu zertan ezer hartu behar. Nahikoa dut musika sentitzearekin”

# 9899

## Ikasturtea

- Oinarriko Ofimatika Office '97 Inguruan
- Diseinu eta Komunikazio Grafikoa
- Fotokonpozizioa:
- Adobe Photoshop
- Komunikazio eta Sare Lokalak: Windows NT
- Programazio Informatikoa
- Kontabilitate eta Komertzial Gestio mekanizatua
- Zerga Gestioa PYMES-etan
- Giza Errekurtsoen Administrazioa
- Kanpo Komertzioa
- Mekanografia ordenagailuz
- Laguntasun Klaseak Postari Oposaketak Planoen Interpretazioa Kalitatearen Gestioa Internet

Administrazio Teknikaria  
Administrazio Laguntzailea

### BERRIAK

- Hegalaldi Azafatak (TCP)
  - Hegalaldi laguntzaile-gizonezkoak
- (Titulazio Ofizialeko ikastaroak)
- Ekipo informatikoen mantenimendua eta

LANGAI-  
Euskal Lan  
Zerbitzura  
Atxikia

Larunbat  
goizetan klaseak  
emateko aukera

### MATRIKULA ZABALIK

AKADEMIA

# BASTIDA

CENTRO HOMOLOGADO POR EL INEM

Araba Etorb., 3 - 1.a  
20500 Arrasate-Mondragón  
Tel.: 943 79 35 33  
Fax: 943 79 06 28  
E-mail: bastida@tsai.es

## ETXEBIZITZAK

### 1. Saldu

• Etxebizitza salgai Gipuzkoa Etorbi-dearen 35ean, Arrasaten. Tel.: 943 79 20 72/943 79 36 84.

• Etxebizitza salgai Makatzenan. hiru logela, sukalde berritua, komuna eta egongelarekin. PVCko leihoak, pertsiara berriekin, SAPELI ateak eta sarrerako sekuritate atea. Tel.: 943 77 06 71. Dei egin eguerdian edo gauean.

### 3. Errentan emateko

• Uztail, abuztu eta irailerako etxebizitza eta bungalow-ak alokagai ditugu Oropesan. Interesatuak deitu 964 31 08 55 telefonora. M<sup>a</sup> Angeles Elizondo.

• Pertsona batentzako logela bat alokatzen da, astelehenetik igandera bitartean. Euskalduna izatea eskatzen da. Tel.: 943 79 72 99 - 943 79 62 04 (Maria Bergaretxe).

• Bakarrik bizi den emakume batek bi oheko gela bat alokatuko luke. Interesatuak deitu 943 79 21 30 edo 943 79 82 43 telefonoetara (Mari).

### 4. Errentan hartzeko

• Ikasle batzuek etxebizitza alokatuko genuke Arrasaten. Tel.: 943 79 84 40. Astegunetan deitu Gorka.

• Etxebizitza behar dugu Arrasaten. Tel.: 945 24 07 01.

• Hiru ikaslek etxebizitza hartuko genuke alokairuan Arrasaten. Tel.: 943 88 97 16. Agurtzane.

• Etxebizitza behar dut Arrasaten, lan tokiz aldatu dudalako. Tel.: 943 78 91 10. Dorleta.

• Karrerako bigarren maila egiten ari diren lau neska arduratsuk etxebizitza alokatu nahi dute Arrasaten. Egoera oneko etxebizitza nahi dugu. Elgoibar. Tel.: 943 74 10 74. Bidatz.

• Neska batek etxebizitza bat alokatuko luke Arrasaten. Tel.: 943 79 88 13. 22:00etatik aurrera.

• Arrasaten edo Aretxabaletan etxebizitza alokairuan hartuko nuke, edo gela bat alokatutako etxebizitzan. Tel.: 943 79 45. Oskar.

• Lau lagunentzako etxebizitza alokatu nahi dugu Arrasaten. Tel.: 943 64 49 41/946 88 08 48.

## ETXEBIZITZAK

1. Saldu
2. Erosi
3. Errentan emateko
4. Errentan hartzeko
5. Etxe konpartituak
6. Bestelakoak

## GARAJEAK

7. Saldu
8. Erosi
9. Errentan emateko
10. Errentan hartzeko
11. Bestelakoak

## LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

## 13. Erosi

14. Errentan emateko
15. Errentan hartzeko
16. Bestelakoak

## LANA

17. Eskaintzak
18. Eskaerak
19. Bestelakoak

## IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak
21. Eskaerak
22. Bestelakoak

## MOTORRA

23. Saldu

## 24. Erosi

25. Bestelakoak

## DENETARIK

26. Saldu
27. Erosi
28. Trukatu
29. Eman
30. Hartu
31. Galdu
32. Aurkitu
33. Bestelakoak

## HARREMANAK

34. Agurrak
35. Kontaktuak
36. Deialdiak
37. Bestelakoak



# 943 77 05 65

ARRASATE PRESS • Otalora Lizentziatua, 31 • 20.500 (ARRASATE)

Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohainekoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Pressek ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik. Astearte eguerdia baino lehen deitu behar da iragarkia jartzeko.

### 5. Etxe konpartituak

• Gela bat alokatzen dut Juan Carlos Gerra kaleko 4an, 2. solairuan eskuinean. Tel.: 943 79 68 00. Iluntzean deitu.

• Irailtik aurrera beste batzuekin bizitzeko prest nago, ikasleekin ahal bada. Tel.: 943 62 59 35. Silvia.

• Iruñean etxebizitza osatzeko lagun bat behar da. Etxea berria da eta egoera onean dago. Tel.: 943 79 59 12.

• Abuztu erditik edo irailtik aurrera gela bat behar dut Arrasateko etxe batean. Dei egin 943 71 24 00 (221 luzapena, David) telefonora, bulego orduetan.

• Bi neska behar dira Donostiako erdialdeko etxebizitza bat osatzeko (98-99 ikasturtea). Tel.: 943 79 68 32 (Anabel)/943 79 38 42 (Jone).

• Ikasleentzako gela bat eskaintzen da. Tel.: 943 79 45 87.

• Pertsona batentzako gela bat alokatzen da San Andresen. Euskalduna bada, hobe. Tel.: 943 79 92 99.

• Mutil bat behar da etxebizitza osatzeko. Tel.: 943 79 89 73. Arratsaldez.

• Bilbon etxea osatzeko neska bat

edo mutil bat behar da. Tel.: 943 79 69 24. Gaez deitu.

• Etxebizitza behar dut, beste batzuekin bizi ahal izateko. Tel.: 944 12 54 95. Deitu 15:00etatik aurrera. Yolanda.

• Etxebizitza osatzeko lagun baten bila ari gara. Etxea Altamiran dago. Handia eta merkea da. Tel.: 943 77 13 20

## LOKALAK/ORUBEAK

### 12. Saldu

• Kalealdean baina Zarugaldetik gertu, 100m<sup>2</sup>ko bi solairuko lokala salgai. Tel.: 943 79 07 24.

## LANA

### 17. Eskaintzak

• Esperientziadun neska prest orduka garbiketarako egiteko (atariak, etxeak, dendak, etab.). Tel.: 943 79 60 03. Deitu 21:00etatik aurrera.

• Neska tituluduna prest aerobic hezitzaile edota muskulazio begirale gisa lan egiteko. Tel.: 943 79 10 53. Deitu 21:00etatik aurrera

• Lanak ordenagailuz pasatzen dira. Tel.: 943 79 11 54.

• Emakume euskalduna prest umeak edo nagusiak zaindu edo etxe garbitzaile gisa lan egiteko. Tel.: 943 79 07 73.

• Esperientziadun neska gertu umeak edo pertsona nagusiak zaindu eta etxe lanak egiteko. Tel.: 943 79 31 44.

• Andra euskalduna prest etxe lanak egin eta umeak zein pertsona nagusiak zaintzeko. Tel.: 943 79 07 73.

• Neska arduratsua umeak zaintzeko prest. Interesatuak deitu 943 71 53 74 telefonora. Goizez, eguerdiz edo 20:00etatik aurrera.

• Emakume bat umeak zaintzeko prest. Tel.: 943 77 03 56. Deitu 20:30etatik aurrera.

### 18. Eskaerak

• Arrasateko gimnasio batek fisioterapeuta bat behar du. Interesatuak bidali curriculum honako helbidera: Pardo Estetika Zentrua (943 79 52 17); Iparagirre Plaza, 4 behea, 20500 Arrasate.

• Neska bat behar da abuztuan ile apaindegí batean lan egiteko. Esperientzia eskatzen da. Tel.: 943 79 22 59. Lan orduetan deitu.

• Taberna lanetarako neska euskalduna behar dugu. Tel.: 945 44 50 86.

• Jostuna behar dugu errezelak edo kortinak eta lumatxak egiteko. Tel.: 943 79 27 27.

• Lan oso erraza, etxetik mugitu barik. Berri gehiago nahi baduzu, bidali gutunazala eta zigilua helbide honetara: A.M.R. Anboto kalea, 20 - 1. ezk. 20500 Arrasate.

• Zerbitzaria behar da irail hasieran taberna batean lan egiteko. Tel.: 943 79 60 43.

• Pertsona bat behar da umeak zaindu eta etxe lanak egiteko. Tel.: 943 79 56 30. 18:00etatik aurrera.

• Jatetxerako zerbitzaria behar da. Neska, euskalduna eta esperientziaduna. Tel.: 943 79 24 58.

• Neska euskalduna behar da dena batean saltzaile bezala lan egiteko. Bidali datuak. 259 postakutxa.

## IRAKASKUNTZA

### 20. Eskaintzak

- Informatikako eskola partikularrak (Pascal, RPG, Clipper, Programazio metodologia, etab.) ematen dira. Tel.: 943 79 11 54.

- Ingeniaritza Teknikoko 4. mailako ikasle batek matematika eta fisika eskolak emango lituzke udan. Tel.: 943 79 51 68. Gorka (eguerdian deitu).

- First izeneko ingeles titulua ateratzeko talde bat osatu nahi dugu. Parte hartu nahi dutenek deitu 943 79 65 49 telefonora. Oskar.

### 21. Eskaerak

- Txinera ikastea gustatuko litzaidake, norbait eskola partikularrak emateko prest balego. Deitu 943 71 50 72 telefonora.

- Euskaraz dakien irakaslea behar nuke irailaren 1etik aurrera, ESOko 1. mailan hasiko den gazte bati eskolak emateko. Tel.: 943 79 06 24 / 943 79 94 52.

- Estatistikako eskolak hartuko nituzke. Tel.: 943 79 79 12.

- Paleografia eta Diplomatiakako eskolak jasoko nituzke uztailean. Tel.: 943 79 94 92. Pilar.

- Kontabilitate eta matematika finantzieroko eskola partikularrak hartuko nituzke uztailean eta abuztuan. Tel.: 943 79 48 99.

## DENETARIK

### 26. Saldu

- Planeta Agostini argazki ikastaroa salgai dago. Praktikak barnean ditu. 8 liburuki. Tel.: 943 79 63 12. Sebastian. Deitu eguerdian.

- "Nosotros los vascos" enziklopedia salgai dago. 21 liburuki. Tel.: 943 79 63 12. Sebastian. Deitu eguerdian.

- Yamaha 250 berezia saltzen da. SS-AM matrikula, 12.000 km. 250.000 ptan eta oso egoera onan. Tel.: 943 79 55 88.

- Eskaintza berezia: american Pit-bull terrier txakurkumeak salgai. Marroiak, Red Nose eta Patrick odolekoak.

35.000 pta. Txertatuak. Tel.: 943 79 37 17.

- Fotokopiagailua salgai. Egoera onean dago. Tel.: 943 77 04 98.

- Etxeko altzairuak saltzen ditut. Oso merke. Tel.: 930 67 33 87. Juan Antonio.

### 27. Erosi

- Disko singleak eta LPak erosten ditut. Tel.: 943 52 65 77.

- Katuarentzako garraiagailua erosiko nuke. Neurri erdi edo txikikoa. Tel.: 943 77 10 20.

- Bigarren eskuko zehar flauta lortu nahiko nuke. Saldu nahi baduzu, deitu telefono honetara: 943 79 54 07. Ines.

### 31. Galdu

- Abuztuaren 24an emakumezkoen paparreko orratz bat galdu zitzaidan, Aldaitik Otalora Lizentziatua bitartean. Topatu baduzu, dei egin mesez felefono honetara: 943 79 71 47. Leo.

- Uztailaren 30ean Oñatitik Arrasatera lanera zihoan neska batek kirol

janzki bat ahaztu zuen autoan. Tel.: 945 27 73 94.

- Irailaren 1ean Setter arrazako hiru hilabeteko txakur emea galdu zen. Zuria da, mota marroidekin. Tel.: 943 79 59 61.

### 32. Aurkitu

- Etxeko katu bat aurkitu dugu. Beltza da eta lepokoa ere badauka. Tel.: 943 79 25 07.

- AH hizkidun bizkar zorro berde-laranja morea aurkitu dugu. Arrasate Press-en galdetu. Arantzazu.

## HARREMANAK

### 35. Kontaktuak

- Kaixo. Xabi naiz eta sexu harremanak izan nahiko nituzke 33 urte-tik beherako mutilekin. Asmo bera baduzu, idatzi postakutxa honetara: 91 zenb. Oñati 20560 Gipuzkoa. Nire aldetik, erabateko zuhurtasuna.

# PERKUSIO TAILERRAK

## • IRAILAK 8 - 11

Nick Twinlleyren eskutik  
18:30etatik 21:00etara (guztira, 10 ordu)  
Jenbe, tradizioa eta inprobisazioa

## • URRITIK EKAINERA, ASTELEHENETAN

Iñaki Bruñaren eskutik  
Hastapen eta sakontze mailak  
Erritmo ezberdinak, afrikarrak, arabiarak, latinamerikarrak, sanba, rock & roll...

Gazteluondo ikastolan

Izen ematea eta berri gehiago:  
Gazte Bulegoan Tel.: 943 77 00 65



**S**an Joan jaietako hirugarren egunean, sokamuturra egiten zen Arrasaten. Herriko gazteek zezena soka luze batekin ondo lotu eta alde zaharreko kale batetik bestera ibiltzen ziren. Argazkiko gazteak—gaur egun 40 bat urte baino gehiago izango dituzte—urteetan ibili ziren zezenarekin gora eta behera. Ezkerrean dagoena, Javier Iriarte da eta aldamenean Teodoro Arana, Jesus Mari Martinez, Felix Agirre eta Pedro Urreta ditu.

Dirudienez, ondo helduta eramaten zuten animalia, sekula ez baitzuten istripurik izan. Zerrajera ingurutik irtezen ziren zezenarekin eta handik, Zarugalderaino eramaten zuten. Buelta Erdiko kaletik hartu eta plazan bukatzen zuten sokamuturra.

**Argazkia eta berria:**  
Pedro Urreta



... **LILURIA** ...

**OIHALAK**

Denboraz prestatu  
Maritzurako jantzia

Zerkaosteta, 5 - Behea • ARRASATE • Tel.: 943 - 79 89 72

**Lore**

*Lurrindegia*

Olarte kalea, 10 • ARRASATE  
Tel.: 943 79 52 50

**S. CARRASCAL S.L.**

**Guk egindakoak:**

- Sukalde altzariak
- Armairu enpotratuak
- Trastelekurako armairuak

**Fabrikari erakusketa**

Gipuzkoa etorbidea, 6 - 1.a  
Tel/Faxa: 943 79 01 82

**AB Asesores-ek zuretzat aukeratu ditu...**

munduko inbertsio fondorik onenak... fondo bakar batean

**AB Fondos RV FIM**

Dei iezaguzu 943 76 54 35 telefonora eta jakinaraziko dizugu.

Gutxieneko inbertsioa: 100.000 pta.

**ABASESORES**

Ondo inbertitzea denon esku dago

Santalaitz, 6

S. Lorenzo Industrialdea

Tel: 943 76 54 35

2570 BERGARA

<http://www.abasesores.es>

# ERREBELATZE ESKAINTZA

**Errebelatu 4 Erroilu eta  
3 Bakarrik Ordaindu**



**Banaka  
ekar  
ditzakezu**



**ITURRIOZ, 8 (ARRASATE)**

# Truke Operazioa

Amuebladora Mondragonesa

EKARRI ZURE  
KOLTXOI ZAHARRA...



...ETA 10.000 PTA  
ARTEKO BEHERAPENA  
izango duzu zure Atsedeen  
Sistema Berrian

## FLEX



Loa kenduko ez  
dizuten prezioak.  
Zatoz eta galdetu!

grupo



**Amuebladora  
Mondragonesa**



a. eme. interiores, Garibai, 9 ARRASATE  
centro hogar muebles, Zigarrola, 1 ARRASATE